



2.- Nola egiten da?

2.5.- Informazio Iturriak

1. Sarrera

UNE 166.006:2011 arauaren arabera –“I+G+b-ren kudeaketa: Zaintza Teknologikoko eta Adimen Lehiakorreko sistema”–, erakundeak dituen informazio premiak abiapuntutzat hartuta – Zaintza Faktore Kritikoak (ZFKak) – identifikatu egin behar dira, ezer baino lehen, erakundeak dituen informazio iturriak eta baliabideak, bai eta eskuragarri izan ditzakeenak ere. Pilula honek ALrako dauden informazio iturri motak deskribatzen ditu, eta informazio iturrien adibide batzuk erakusten dizkigu.



Informazio iturriak

2. ALrako Informazio iturriak

Informazio iturriak definitzeko, hauek hartu behar dira kontuan:



Irudia 1: Informazio iturriak

Kanpoko informazio iturriak identifikatu eta aukeratzeko, hainbat faktore hartu behar dira kontuan, esaterako, kalitatea, zenbat informazio ematen duten, informazioaren objektibotasuna eta fidagarritasuna, eta zenbateko maiztasunez eguneratzen duten informazioa.

Informazio iturriak 6 tipologiatan sailkatu daitezke, hainbat irizpideren arabera. Hona hemen 6 informazio iturri mota:

Informazio mailaren arabera:



LEHEN MAILAKOAK: informazio berria eta jatorrizkoa jasotzen dute (artikulu zientifikoak, patenteak, dokumentu ofizialak, dibulgazio artikulua, liburuak...)

BIGARREN MAILAKOAK: informazio antolatua, landua, jatorrizko lehen mailako dokumentuetako informazio atera, aztertu eta antolatu ondoren ateratzen dena (antologiak, analisi artikulua, etab.).


Edukiaren arabera:



OROKORRAK: informazio berria eta jatorrizkoa jasotzen dute (artikulu zientifikoak, patenteak, dokumentu ofizialak, dibulgazio artikulua, liburuak...)

ESPEZIFIKOAK: zaintza faktore kritiko bakar bati erantzuten diote (aldizkari tematikoak, datu base espezializatuak, elkarteak ...)

Zenbateraino garatuta dauden kontutan hartuta:



FORMALAK: bigarren mailako dokumentuak dira, jada landuta daudenak eta edozein erakunderen egoera deskribatzen dutenak (albisteak, datu baseak, arauak...)

INFORMALAK: lehen mailako dokumentuak, landu gabe eta aztertu gabe daudenak. Informazio argia eta zehatza lortzeko, esaterako, oharrak, azoketarako bisitak, eskemak eta antzekoak, beharrezkoa da iturri horiek aztertzea eta deskribatzea.

Informazio iturri bat ebaluatzeko orduan, parametro hauek definitu ohi dira:

Erakundearen premiei erantzuteko egokitasuna.

- Sintesia, zehaztasuna eta argitasuna
- Fidagarritasuna eta objektibotasuna
- Eguneratze maila.
- Eremu geografikoa.
- Gaiak.
- Hizkuntza.
- Eskuragarritasuna.

Artikulu honetan esandakoa oinarri hartuta, informazio iturrien hainbat adibide aukeratu dira, Gipuzkoako enpresentzat interesgarri izan daitezkeelakoan:

Abistek: [Yahoo News](#), [Bing News](#).

Patenteak: [Espacenet](#), [WIPO](#), [The Lens](#).

Artikulu zientifikoak: [Sciencedirect](#), [IEEE](#), [IngentaConnect](#).

Arauak: [Beuth](#).

Sare sozialak: [Twitter](#), [Facebook](#), [LinkedIn](#).

Aholkularitzak: [Deloitte](#), [Roland Berger](#), [PricewaterhouseCoopers](#).

Multimedia: [Youtube](#), [Slideshare](#), [ISSUU](#).

Teknologia Zentroak: [Fraunhofer](#), [IK4](#), [Tecnalia](#).

Unibertsitateak: [MIT](#), [KTH](#).